# Gazte Klik Klak lehiaketaren irabazleek Montehermoson erakutsiko dituzte beren lanak

**Saria lankidetza bidezko lan bat izango da, eta amaitutakoan beste erakusketa bateratu bat egingo dute, ZAS Kultur arte taldearen tutoretzaren pean**

**Gazte Klik Klak** lehiaketaren irabazleek Montehermoson erakutsiko dituzte beren lanak, bihartik hasita urtarrilaren 8ra arte. Gazte Klik Klak **argazki eta bideo digitaleko lehiaketa** da, **14 eta 25 urte bitarteko gazteentzat**; arte sorkuntza sustatzea du helburutzat, eta erakustokiak hartuz **sortzaile berrien lana ikusaraztea**, Udaleko Gazte Planaren parte-hartzea, sormena eta berrikuntza ildoaren barruan.

*"Urtero bezala, gazteak dira benetako protagonistak, eta **Gasteizi buruzko begirada freskoa** dakarkigute. Gasteizko Udaleko **Gazteria Zerbitzuak** antolaturik eta **ZAS Espacio Cultural** taldeak, **Gauekoak** programak, **Montehermoso kulturuneak** eta **Biltzar eta Turismo Zerbitzuak** lagundurik, 15 eta 25 urte bitarteko gazte gasteiztarren konplizitatea bilatu dugu, hiriaren beste ikuspuntu bat izateko, zure etxean bertan turista izateak ematen duen ikuspuntua, marketin turistikoa eraikitzerakoan edozein hiriri atxikitako leku tipikoetatik haratago"*, nabarmendu du Gazteriako zinegotzi Iñaki Prusillak.

Gazte Klik Klak lehiaketaren 2016ko edizioan **nabarmen hazi da parte-hartzea** aurreko edizioen aldean. Guztira 68 lan aurkeztu dira: 56 argazki-bilduma eta 12 bideo. 58 pertsonak hartu dute parte, zehazki, 15 eta 25 urte bitarteko 36 emakumek eta 22 gizonek; parte-hartzaileen arteko 44k 20 urte edo gutxiago du.

*"Gazte Klik Klak lehikaketak bere helburu nagusia bete du: gazte sortzaileen figura agerian jartzea, zeinek gaztetatik ohartarazten baitigute gogotsu datozela",* adierazi du Prusillak. Orobat gogoratu du lau irabazleek jasoko duten saria: **lankidetza bidezko lan** bat, eta hori amaitutakoan beste **erakusketa bateratu** bat –Tetrapack– egitea, 2017ko apirilean, ZAS Kultur arte taldearen **tutoretzaren pean**.

Aurkezpenean **Iñaki Larrimbe** izan da **ZAS Kultur** taldearen izenean, prozesu osoan komisario eta tutore zereginak betetzen baititu talde horrek. Erakusketa egiteko bidea zertan izan den azaldu du, eta nolakoa izango den gaur bertan hasita Tetrapack prestatzeko lana.

Erakusketa bihar inauguratuko da, arratsaldeko zortzietan, Montehermoson, eta 2017ko urtarrilaren 8ra arte ikusi ahalko da.

**Hauek dira irabazi duten lanak:**

| | |
|---|---|
| "Guía turístico" | Andoni Elizondo Donado |
| "Entra en Vitoria" | Elisa Pérez Velasco |
| "(In)visibles" | Idoia Ruiz Moraza |

“Alive” Amaia Ugarte Álvarez

Saritutako lanez gain, beste hauek hautatu dira:

| | |
|---|---|
| “Isiltasunaren soinua” | Nuria Pérez Cárcamo Samaniego |
| “Hiri zaharraren gazte islada” | Jon Gil Alonso |
| “Iluntasuna argia” | Ohiane Gil Cirion |
| “Gasteiz estenopeica” | Urki Castro Martínez Gil |
| “De madera” | Irene Santiago Sánchez |
| “La metamorfosis de la línea” | Nuria Pérez Cárcamo Samaniego |
| “Aurpegia eta gurutzea” | Estibaliz Aguirre López de Munain |
| “Overcoming” | Xabier Martínez Ortiz de Pinedo |

**Erakusketak**

Bi lekutan erakutsiko dira lanak:

**Montehermoso kulturunea** (klaustroa)

Irabazi duten eta hautatuak izan diren bideoen eta argazki-bildumen erakusketa. 2016ko abenduaren 1etik 2017ko urtarrilaren 8ra.

**Galeria birtuala**

Udalaren web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org/gazte klik) lehiaketara aurkeztu diren argazki eta bideo guztiak ikus daitezke.

# Jóvenes ganadores del certamen Gazte Klik Klak exponen sus obras en Montehermoso

**El premio será un trabajo en colaboración que culminará en una nueva exposición compartida y tutorizada por el colectivo artístico ZAS Kultur**

Jóvenes ganadores y ganadoras del certamen **Gazte Klik Klak** expondrán sus obras desde mañana y hasta el próximo 8 de enero, en Montehermoso. Gazte Klik Klak es un certamen **de fotografía y video digital** para **jóvenes de 14 a 25 años** que impulsa la creación artística ocupando espacios expositivos para **visibilizar el trabajo de nuevos creadores y creadoras** y se enmarca en el desarrollo del Plan Joven Municipal en su línea de participación, creatividad e innovación.

*"Como cada año las y los verdaderos protagonistas son las personas jóvenes que nos aportan una* ***mirada fresca sobre Vitoria-Gasteiz****. Organizado por el* ***Servicio de Juventud*** *del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la colaboración de* ***ZAS Espacio Cultural****,* ***Gauekoak****,* ***Centro Cultural Montehermoso*** *y el* ***Servicio de Congresos y Turismo****, hemos buscado la complicidad de la juventud gasteiztarra, entre los 15 y los 25 años, para descubrir una nueva visión de nuestra ciudad desde una perspectiva que propone ser turista en tu propia casa. Más allá de los lugares tópicamente asimilados a cualquier ciudad sobre los que se han ido construyendo el marketing turístico"*, ha destacado el concejal de Juventud Iñaki Prusilla.

La **participación** en el concurso Gazte Klik Klak de este año 2016 se ha **incrementado notablemente** con respecto a ediciones anteriores. Se han presentado un total de 68 trabajos, 56 series fotográficas y 12 videos. Han participado un total de 58 personas. 36 mujeres y 22 hombres con edades comprendidas entre los 15 y los 25 años. 44 de las personas participantes tienen 20 años o menos.

*"Gazte Klik Klak cumple con su objetivo primordial: poner en relieve la figura de jóvenes creadoras y creadores que nos avisan desde su juventud que vienen pegando fuerte",* destaca Prusilla, que ha recordado que el premio para estas cuatro personas será un **trabajo en colaboración** que culminará en una nueva **exposición compartida y tutorizada** por el colectivo artístico ZAS Kultur en el mes de abril del próximo 2017: Tetrapack.

En la presentación también ha participado **Iñaki Larrimbe**, en representación del colectivo **ZAS Kultur** que realiza funciones de comisariado y tutorización en todo este proceso, que ha comentado cómo ha sido el camino que ha culminado en esta exposición y cómo será el trabajo que a partir de hoy mismo comienza para preparar Tetrapack.

La exposición se inaugura mañana a las ocho de la tarde en Montehermoso y se podrá visitar hasta el 8 de enero del año próximo.

**Los trabajos ganadores:**

| | |
|---|---|
| "Guía turístico" | Andoni Elizondo Donado |
| "Entra en Vitoria" | Elisa Pérez Velasco |
| "(In)visibles" | Idoia Ruiz Moraza |
| "Alive" | Amaia Ugarte Álvarez |

Igualmente se ha seleccionado, junto a las premiadas, a las personas que a continuación se relacionan junto con el título de sus obras:

| | |
|---|---|
| "Isiltasunaren soinua" | Nuria Pérez Cárcamo Samaniego |
| "Hiri zaharraren gazte islada" | Jon Gil Alonso |
| "Iluntasuna argia" | Ohiane Gil Cirion |
| "Gasteiz estenopeica" | Urki Castro Martínez Gil |
| "De madera" | Irene Santiago Sánchez |
| "La metamorfosis de la línea" | Nuria Pérez Cárcamo Samaniego |
| "Aurpegia eta gurutzea" | Estibaliz Aguirre López de Munain |
| "Overcoming" | Xabier Martínez Ortiz de Pinedo |

**Exposiciones**

Va a haber dos espacios expositivos:

**Centro Cultural Montehermoso** (Claustro)

Exposición de los videos y series ganadoras y seleccionadas. Del 1 de diciembre de 2016 al 8 de enero de 2017.

**Galería Virtual**

Ubicada en la web municipal (www.vitoria-gasteiz.org/gazte klik) con todas las fotografías y videos presentados a concurso.